



## **FUNTSEZKO SOZIETATEAK**

Gure aplikazioaren izena “**GreenRev**” da. Lau pertsona izango gara enpresaren **zuzendariak**: Maialen, Maria, June eta Iker. Bakoitza espezialista da enpresako aspektu batean. Enpresaren buru lau pertsona izango gara, baina beste pertsona batzuk ere kontratatuko ditugu.

Maialen Informatikaria da, Ingenieritza informatikoa ikasi zuen EHUn eta praktikak ere egin zituen. Hortaz gain, master bat egin zuen “Mugikorretarako aplikazioen garapena”. Gaztea izanagatik Maialenen lan-experientzia nahiko handia da. Enpresa batean lan egin zuen bi urtez informatikari lanetan.

Maria aldaketa klimatikoan aditua da. Mariak aldaketa klimatikoari buruz ikasketak egin zituen. Mariak inoiz ez du lan egin aldaketa klimatikoarekin zerikusia duen zerbaitekin, baina aplikazioko berriak idatziko ditu eta aholkuak “*Green Person*” bat izateko emango ditu.

June Disenatzailea da. Aplikazio mugikorren garapena ikasi zuen. Aplikazioen diseinuan masterra egin zuen, eta praktikak ere egin zituen. Bere lana gure enpresan (Zuzendaria izateaz gain) gure aplikazioaren diseinua egingo du, hau da, gure aplikazioa nola izango den ikuslearentzat.

Azkenik, Iker marketineko arduraduna da. Marketina ikasi zuen EHUn eta praktikak ere egin zituen enpresa batean. Lan munduan ere egon da; hiru hilabetez praktikak egiten egon zen enpresa hortan lan egin ondoren, lan-kontratu bat eskeini zien eta bertan lan egin zuen urtebetez. Marketin digitalean masterra dauka eta bere funtzioa enpresan, gure aplikazioa ezaguna izatea da. Horretarako bere marketin digitaleko jakintza erabili beharko du.

Lehen aipatu bezala, gure enpresan ez gara lau pertsona bakarrik arituko. Bakoitzaren espezializazioan pertsona batzuk kontratatuko ditugu guk bakarrik lana ez egiteko, are gehiago, Fridays For Future-ekin hitz egin dugu eta beraiekin bat-egite bat egitea pentsatu dugu. Egun mugimendu horrek indar asko du gure gizartean eta gure aplikazioak asko lagun dezakela uste dugu, horregatik bat-egite honek onura asko ekar ditzakela uste dugu. Aplikazioa deskargatzen duten guztiek egunerokotasunean aldaketa klimatikoari buruz gertatzen diren berriak jakin ditzakete, aholkuak jaso ahalik eta “*Green Person*”-ena izateko eta, gainera, material ekologikoa eros dezakete. Horrek guztiak, guretzat eta munduarentzat benefizio asko ekarriko lituzke.